Nafarroako kontu sinestezinak

Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá
ITZULTZAILEA ETA KAZETARIA

Kontuak hartzen dituena; esate baterako, udal bateko kontuak aztertu eta fiskalizatzen dituen pertsona. Horixe da kontu-hartzailea, hiztegien arabera. Udal orotan eta gobernu departamentu guztietan badago lanpostu hori. Egia erran, suma genezakeen ez zela lanpostu arrunta, garrantzitsu samarra baizik, baina hori da hori gure okerraren handia!, postu hori funtsezkoa baita alde aunitzetatik begira, baita aldaketa politikoa hauspotzerakoan edo trabatzerakoan ere.

Izan ere, legealdiaren erdirantz goazen honetan, desadostasunak desadostasun eta nekeak neke, aldaketa, egia erran, bidea urratzen ari da, sendoxeago dago, eta abenduko Navarrometroak gauzak bere tokian jarri zituen, UPN eta ingurukoen etsipenerako. Cordovilla eta enparauak egunero heriosuhar erauntsika eta garrasika badabiltza ere, laukoa bizkor samar ageri da funtsezko gai aunitzetan, hori bai, non ez den euskara ageri, kontu horretan oraindik ere gehiago baitezakete bi botok hogeita lauk baino, sinestezina bada ere. Eta euskararen kontuetan ere, hara! zorioneko kontu-hartzaile zenbaiten itzala sumatzen da, edo pairatzen da, zenbait udaletan edo gobernu departamentutan gertatzen ari denari erreparatuta. Konparaziora, har ditzagun adibidetako Iruñerriko bi udal; biak ere handi, biak ere arras garrantzitsu, eta biak ere aldaketaren aldeko, erran nahi baita, alkatea aldaketa zale. Ba, berdin da osoko bilkurak euskara sustatzeko diru-laguntza hau edo hura onetsi izana; berdin da euskal elkarte batekin hitzarmena egitea erabaki izana; berdin da euskararen aldeko neurriak onartu izana; berdin da… zeren eta, erabakia lege ororen bedeinkazioekin hartua izanagatik ere, hantxe agertuko baitzaio alkate jaun-andreari harako kontu-hartzaile haietako bat, eta "ez!" erranen dio, eta ez dio bide emanen udalak erabakitakoari, erabakiaren mamia legearekin bat ez datorrelakoan. "Aizu, udal idazkaria ez da zure iritzi-kide; legea alde dugu" kexatuko zaio alkatea edo kasuan kasuko zinegotzi arduraduna, eta kexari argudioak jarraituko zaizkio: "UPN alkatetzan zegoenean, antzera jokatzen zen bertze gai batzuetan, eta zuk ez duzu sekulan kontrako iritzirik agertu, ez duzu deus eragotzi, aitzitik baizik". Alferrik, ordea. Kontu-hartzailearen bedeinkazioa jasotzen ez den bitartean, dena geldirik egonen da edo izugarri atzeraturik. Eta udaletan nola, Gobernuko zenbait sailetan ere halaxe, ez sinestekoa badirudi ere. Galdetu, bertzenaz, euskarari bide emateko eratua den erakunde ofizialean. ■

Hire indarra behar dinagu

Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Kalera kalera! ekimenaren karietara hamarnaka ekitaldi, hitzaldi eta bilera egin dira abendu eta urtarrilean. Emakume preso politiko ohiek antolatutako mahai-inguruan, dispertsioaren ondorioz bakartzea bizi behar izan zuen Mertxe Galdosi entzutea hunkigarria izan zen. Eta batez ere, isolamendu egoeran dagoen Arantza Zulueta horrela irudikatzea.

Zirraragarria izan zen hainbeste emakume elkarrekin ikustea, lanerako gogoz, emakume preso politikoek bizi duten egoera ikustarazteko beharrizana azaleratuz. Kartzelak, patriarkatuak antolatutako espazioak direla azpimarratu zen, emakume otzan eta esanekoak sortzeko.

Dispertsioaren ondorioak ere ageriko geratu ziren, espetxea barrutik zein kanpotik bizi behar duenarentzat zigor erantsia direla argi utziz.

Bihotzak bero atera ginen urtarrilaren 14an kalera. Gogotsu, gurera ekartzeko, salbuespen legediekin amaitzeko. Hurrengo astelehenean ordea bihotza uzkurtu zitzaigun, preso politiko baten alabak pairatutako indarkeria matxista kasuaren aurrean. Artean, buelta eman ezinda ginenean, Nafarroan emakume baten erailketaren berri izan dugu. Argi utzi digu horrek, kartzelak bakarrik ez, sistema bera, patriarkala eta toxikoa dela. Horrek ere premiazko erantzunak behar ditu. ■